

INTXAURRONDO KANTUZ

Jarduera

Kanta herrikoien inguruko ikastaroa.

Deskribapena

Kantu Jira ekimenaren barruan kokatzen den jarduera da tailer hau. Ekimena 2003. urtean sortu zen, Euskaldunon Egunkaria itxi izanarengatik protesta egiteko modu gisa. Orduan, Donostiako auzo ezberdinetako abesteko zaletasuna zuen jendea batu eta lehenengo kantaldi herrikoi bat antolatu zuen.

Geroztik, Kantu Jira erabat errotu da Donostian, eta baita lehen mailako kultur-ekimena bihurtu ere. Kantu zaleen bilgune bilakatu da. Hilabetean behin 300 pertsonatik gora batzen dira alde zaharrearantz zehar kantuan ibiltzeko. Eta kopurua hazi eta hazi dabil.

Auzoetan tailerrak egiten dira eta, kasu honetan Intxaurren, kantuak ikasi eta abesteko ikastaroa dago antolatua. Hemen, kantu herrikoia duten euskal abestiak ezagutu eta entseatuko ditugu, gure musika-kulturari jarraipena emanez eta, noski, tarte benetan atsegin bat biziz.

Helburuak

- Euskal abesti herrikoiak ezagutu.
- Musika-kultura herrikoari jarraipena eman.
- Kantu Jira ekimenerako abestiak entseatu.
- Abesteko zaletasuna elikatu.
- Tarte atsegin bat pasa, lagun-giroan.

Nori zuzendua

Helduak.

Ez da aurreko ezagutzarik behar.

Oharra:

Ikasle guztiak beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.